

Ebazpena: R162/2022

Espedientea: 18/2015

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Talde fiskalei 2017aren aurretik ordainarazten zitzairen sozietateen gaineko zergaren inguruan ASLk egindako zerga-kontsultari buruzkoa. Kontsulta hori Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak helarazi zuen, ezinezkoa zitzaiolako haren ebazpenari buruzko akordioa lortzea, eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 18/2015 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- ASLk kontsulta bat aurkeztu zion Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari, alderdi hauetan oinarrituta:

a.- Zerga-egoitza Bizkaian duen sozietate bat da kontsulta-egilea, beste entitate batzuetan inbertitzen eta partaidetza horiek kudeatzen jarduten dena. Horretarako, lurralde historiko horretan ditu langileak eta administratzaileak.

b.- Jarduera horren ondorioz, ANSL, AMSL, BSL eta BLSL sozietateetan % 100ean parte hartzen du. Sozietate horiek guztiek Bizkaian dute zerga-egoitza, eta lurralde erkidean kokatutako jatetxe-negozioak ustiatzen dituzte.

c.- Bai nagusia eta bai mendekoak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Bizkaiko foru-araudiaren mende daude, banaka hartuta inork ez baitu gainditzen 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena.

d.- Sozietateen gaineko Zerga zerga-kontsolidazioko taldeen araubide bereziaren arabera ordaintzea pentsatzen ari dira.

Kontsulta-egileak galdera hauek egin ditu, zergak taldeen araubidean ordaintzearen kasurako:

a.- Ea Ekonomia Ituneko lotuneen arabera lurralde erkidean dauden errenten zergak Estatuari ordaindu behar zaizkion.

b.- Aurreko galderari baietz erantzunez gero, ea bateragarriak diren zerga gehienak Estatuari ordaintzea eta foru-araudia aplikatzea.

c.- Aurreko galderari baietz erantzunez gero, ea hori bateragarria den Ekonomia Itunaren benetako interpretazioarekin.

d.- Ea, araudi komuna edo foru-araudia aplikatzeari begira eta lurralde erkidean egindako eragiketa-bolumenaren % 75a aztertzeari begira, aurretik etorritako irizpideetan eraginik baduen kontsolidazio-taldeak 7 miloi eurotik gorako edo beherako eragiketa-bolumena izateak, kontuan hartuta ituneko irizpideak sozietate indibidualentzat ezartzen direla.

2.- Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak erantzun-proposamen bat egin zuen, taldeen tributazio-arauetan oinarritua, eta, bertan, taldeei Ekonomia Itunaren 15. artikuluko arauen arabera ordainaraztea proposatu zuen.

3.- Bestalde, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak erantzun-proposamen bat egin zuen, eta, proposamen haren arabera, talde guztiek, beren eragiketa-bolumena edozein dela ere, eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu behar dituzte zergak.

4.- Akordioa lortzea ezinezkoa zenez, kontsulta Arbitraje Batzordera bidaltzea erabaki zuen Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 16an.

5.- Prozedura izapidetzeko, Ekonomia Ituneko 64.b artikulua eta Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudiko (aurrerantzean EIABA deituko diogu) 16. artikulua ezarritakoari erreparatu zaie, -lehenengoa 12/2002 Legearen bidez onartu zen eta, bigarrena, 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez-. Baina administrazioen arteko desadostasunak bere horretan jarraitzen du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunei dagokienez:

Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko.

2.- Gaiaren funtsa

Arbitraje Batzordeak 72/2022 eta 73/2002 Ebazpenak eman ditu, 24/2013 gatazkan eta 34/2016 eta 15/2017 gatazka metatuetan, hurrenez hurren. Ebazpena berbera da bi kasuetan, eta hemen oso-osorik errepikatutzat ematen da.

Ebazpen horrekin bat etorriz, eta 10/2017 Legearen bidez aldatu aurretik Ekonomia Itunean indarrean zegoen 20. artikularen arabera –kasu honetan *ratione temporis* aplika baitaiteke artikulua hori– taldeek, kokapen-arauen arabera eragiketak non egin, hango administrazio guztiei ordaindu beharko dizkiete zergak, eragiketa-bolumenaren proportzioan, edozein eragiketa-bolumen eta zerga-egoitza dutela ere (taldeari dagokionez, ez dago zehaztuta Ekonomia Itunean).

Taldeari foru-araudia edo estatuko araudia aplikatu behar zaion zehazteko, kontuan hartu behar dena da banakako tributu-ordainketaren araubidearen araberrako zer araudi aplikatu beharko litzaielkeen nagusiari eta mendeko guztiei, talde mistoak kontuan hartu gabe. Eta, sozietate guztiak, banaka hartuta, foru-araudiaren mendekoak direnez, halaxe da taldea ere.

Ondorioz, guztiz posible eta Ekonomia Itunaren espirituarekin bateragarria da talde fiskal batek sozietateen gaineko zergaren foru-araua aplikatzea eta eragiketa-bolumenaren proportzioan tributatzek estatuaren aldeko proportzio handiagoa eragin ahal izatea.

Kontsulta 10/2017 Legeak Ekonomia Ituneko 20. artikulua aldatu aurretik egin bazen ere, komeni da adieraztea eskuartean daukagun kasuari dagokionez ez dela aldaketarik izan (aldaketa bakarra 20.bi.3 artikulua berria da) eta hurrengo ekitaldietarako ere erantzun berbera aplika daitekeela..

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Kontsultari erantzutea ASL nagusitzat duen talde fiskalari sozietateen gaineko zergaren foru-araudia aplikatu beharko litzaiolkeela eta, horrez gain, eragiketa-bolumenaren proportzioan tributatu beharko lukeela taldeak, eragiketen kokapen-arauekin bat etorriz.

2.- Erabaki hau Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta ASLri jakinaraztea.